

BERTARATU DIREN ZINEGOTZIAK

LORENZO ZUBILLAGA GOICOECHEA
MARIA CRISTINA VAL SARDON
NEREA YEREGUI BALDA
IGOR OTERMIN EGUIA
IÑAKI ELIZALDE ZUBILLAGA
AITZIBER OTAMENDI ECHARRI

BERTARATU EZ DIRENAK

ANDER PRADOS OTAMENDI

IDAZKARIA

Joanes Aleman Olló

Betelun, Udaletxeko udal
bilkuren gelan, 2023ko
azaroaren 29an arratsaldeko
zazpi eta erdiak direnean,
ondoan aipatzen diren
zinegotziak elkartu dira,
Lorenzo Zubillaga
Goicoechea alkatea buru dela
eta egintzaren fede ematen
duen Joanes Aleman Olló
idazkariak lagundurik.

Udal bilkura dagokion deialdiaren ondoren egin da, erreglamentuan ageri den aurrerapenarekin eta deialdia beraren eta gai zerrendaren ale bat udaletxeko iragarki oholean iragarri ondotik.

Ohiko izaera duen bilkura irekirik eta lehendakaritzak publikoa dela esanik; Idazkariak bilkura hasteko behar den zinegotzi kopurua bertaratu dela egiaztaturik; gai zerrendan diren ondoko puntuak aztertzeari ekin zaio.

1. 2023-10-26KO UDAL BILKURAKO AKTAREN ONARPENA

Deialdiarekin batera banatu den 2023-10-26ko bilkurako aktaren inguruan udalbatzako kideren batek zerbait esateko duen galdetu du lehendakariak.

Zinegotzi bakar batek ere ez du deus adierazi.

Lehendakariak akta bozkatzera ekarri eta udalbatzak aho batez onartu du.

2. ALKATEAK EMANDAKO EBAZPENAK:

1. Jorge Pilarte Vives

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2023ko urriaren 26an, 73/2023 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Etxean dituen hezetasun arazoak mugakide duten piszinatik eratoritzen direla eta, egoera aztertzeke eskaera egin du Jorge Pilarte Vivesek. Beteluko Udalak ebatzi duenez, ez dagokio Beteluko Udalari esku-hartzerik egitea ondokoa justifikatzen ez den artean: hezetasunak daudela, hezetasun lurzati mugakideko igerilekuak sortzen dituela eta jabe eragileari eskatu ondoren, ez dela bete legezko mantentze-lanak egiteko betebeharra

2. Ainhoa Beraza

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2023ko azaroaren 20an, 74/2023 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Ainhoa Berazari (Euskara Mankomunitatearen izenean) abenduaren 9an ospatu behar den Araitz-Beteluko egunerako plaza eta frontoia erabiltzeko baimena ematea.

3. Aralar musika eskolako zuzendaritza

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2023ko azaroaren 20an, 75/2023 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Nora Nazabal Otamendiri indianoetxeko gelaren bat erabiltzeko baimena ematea musika entseguetarako.

4. Ordainketa agindua

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2023ko azaroaren 20an, 76/2023 Ebazpena onartu zuen. Gaia: 2023ko irailaren 20an egindako osoko bilkuran onartu ziren fakturak ordaintzea.

5. Aralar musika eskolako zuzendaritza

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2023ko azaroaren 23an, 77/2023 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Gabriela Mora Velizi indianoetxeko gelaren bat erabiltzeko baimena ematea musika entseguetarako.

3. 2024. URTEKO KARGA TASAK

Batzarrari ondoko akordioa onartzea proposatzen zaio:

1. Nafarroako Toki Ogasunen 2/1995 Foru Legearen 12 eta 13. artikuluetan eta Nafarroako Toki Administrazioaren 6/1990 Foru Legearen 325 eta hurrengo artikuluetan zehaztutakoaren arabera, ondoko karga tasa hauek onartu dira 2024. urterako.

1.1. Lur-ondasunen gaineko kontribuzioa: karga tasa: %0,320

1.2. Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga: karga tasa: %3,5.

1.3. Jarduera ekonomikoen gaineko zerga: udalaren gutxieneko indizea:

-Hiriguneko jarduerak: udalaren gutxieneko indizea; 1,26.

-Hirigunetik kanpoko jarduerak: udalaren gutxieneko indizea; 1,20.

1.4. Hirilurren balio igoeraren gaineko zerga: Onestea koefizienteak, aplikatzekoak direnak lurraren balioaren gainean sortzapenaren unean, eta balio-gehikuntzaren sortzealdia kontuan hartuta. Horiek izanen dira 2/1995 Foru Legearen 175.2 artikuluan ezarritako gehieneko koefizienteak.

Karga-tasari dagokionez, balio-gehikuntzaren sortzealdi guztietan karga-tasa bakarra ezartzea: %18.

1.5. Haurtzaindegi zerbitzuko tasa, haur bakoitzeko hilabetean. (Aplikatuko dira Nafarroako Gobernuak haur hezkuntzako ikastetxeetarako onetsitako tarifak)

2. Erabaki honek 2024. urteko urtarrilaren batean hartuko du indarra.

3. Erabaki honen aurka, ondoko errekursoetako bat aurkez daiteke: a) Berraztertze errekursoa egintza hau egin duen organoari, hilabeteko epean, erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita; b) Administrazioarekiko auzi-errekursoa Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan edo Epaitegian, bi hilabeteko epean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita; c) Gora jotzeko errekursoa Nafarroako Administrazio Auzitegian, hilabeteko epean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita.

Lehendakariak akordioa bozkatzera ekarri eta batzarrak aho batez onartu egin du.

4. 2024. URTEKO ORDENANTZA FISKALAK

Udalbatzari proposatzen zaio ordenantza hauen artikuluen aldaketari hasierako onespena ematea.

- BETELUKO HERRI BIDEEN ETA BASO PISTEN ERABILERAGATIK EZARRITAKO TASAK ETA FIDANTZAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

8. artikulua. Aurreko artikuluan adierazitako subjektuek ordaindu beharreko tasa 2,00 eurokoa izango da metro kubikoko, zura pasatuz gero, eta 2,00 eurokoa tonako, eraikuntzako materialak eta makina astunak pasatuz gero.

9. artikulua. Fidantzaren zenbatekoa metro kubiko bakoitzeko 4,00 eurokoa izango da zura pasatzen bada, eta 4,00 eurokoa tona eraikuntza-materialen eta makina astunen kasuan.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz, espedientea jendaurrean jarriko da hogeita hamar egun balioduneko epean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita, herritarrek eta legezko interesdunek espedientea aztertu eta erreklamazioak, eragozpenak edo oharrak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Erregelamenduzko epean erreklamaziorik aurkezten ez bada, ordenantzen aldaketak behin betiko onartutzat joko dira.

Alkateak erabakia bozkatzera ekarri, eta Udalbatzak aho batez onartu du.

5. GARBIKETA ZERBITZUAREN KONTRATAZIO ESPEDIENTEA

Beteluko Udalaren asmoa da Beteluko udal instalakuntzen eta eskolaren garbiketa esleitzea, orain arte indarrean zen kontratuaren gehienezko epea iragan baita.

Zerbitzu kontratua esleitzeko hasitako kontratazio-espeditentea aztertu da.

Honako hau erabaki da:

1. Administrazio-klausula zehatzen agiria eta baldintza teknikoen agiria onartzea.
2. Kontratazio-mahai hau izendatzea, zerbitzua kudeatzeko kontratua esleitzeko proposamena egiteko:

Presidentea: Lorenzo Zubillaga Goicoechea jauna

Mahaikideak:

- Iñaki Elizalde Zubillaga, Beteluko Udaleko zinegotzia.
- Nerea Yeregui Balda, Beteluko Udaleko zinegotzia.

Mahaikide-idazkaria: Joanes Aleman Olló

6. JABARI PUBLIKOKO ONDASUNAREN KALIFIKAZIO JURIDIKOA ALDATZEKO ETA LURSAIL SOBERAKIN IZENDATZEKO ESPEDIENTEAREN HASIERAKO ONESPENA (MUÑOA ETXEAREN INGURUKO ZATIA)

Beteluko 1. Poligonoko 9. Lursailean dagoen Muñoa izeneko etxearen inguruan dagoen eremu publikoaren kalifikazio juridikoa aldatzeko espeditentea azterturik eta oraintxe bertan lurzati hori jabari publikoko ondasuntzat jotzen dela jakinik.

Kontuan harturik lurzati horrek ez duela inongo erabilerarik.

Ikusirik aldamenekoei zuzenean esleitu nahi zaiela, honako hau erabaki da:

1. Hasiera batean, Beteluko 1. Poligonoko 9. Lursailean dagoen Muñoa etxearen inguruko 795,88 metro karraturen kalifikazio juridikoa aldatzea, eta lurzati soberakintzat hartzea, hau da, ondare-ondasuntzat.
2. Jendaurrean jartzea hilabeteko epean, udaletxeko iragarki-oholean, eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, egoki diren alegazioak egin ahal izateko.
3. Jendaurreko erakustaldian erreklamaziorik aurkezten ez bada, ondasunaren kalifikazio juridikoaren aldaketa behin betiko onartutzat joko da.

Erabaki hau aho batez onartu dute Udalbatzako kideek, hau da, Udalbatzako kideen legezko kopuruaren gehiengo osoa lortu dute.

Hori guztia Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 102. eta 103. artikuluetan eta Nafarroako Toki Erakundearen Ondasunen Erregelamenduaren 10. eta 12. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

7. HASIERAKO ONESPENA EMATEA 1. POLIGONOKO 229 HERRI-LURZATIKO 25 M2-KO DESAFEKTAZIO-ESPEDIENTEARI, TRUKERAKO

Beteluko udaleko udalbatzak 2017ko martxoaren 14an egindako bilkuran, udal hilerria eraberritzeko proiektuaren behin betiko onarpenarekin batera, Izaskun Iriarte Lanzek Beteluko 1. Poligonoko 97. Lursailaren 126,50 metro karratu desjabetzeko prozeduraren baitan egindako alegazioetan proposatutako trukaketei erantzuteko hitzarmena onartu zuen.

Hitzarmen hori 2017ko apirilaren 10ean sinatu zuten Miguel Javier Recalde Goldaraz alkateak Beteluko Udalaren izenean eta Arantzazu eta Izaskun Iriarte Lanzek. Hitzarmen horretan, Beteluko 1. Poligonoko 97. Lursailaren 126,50 metro karratu horiek Beteluko Udalaren jabetzakoa den 1. Poligonoko 229. Lursaileko 25 metro erabilgarriekin trukatzeko bi alternatiba aurreikusi ziren. Lursailen balioaren diferentzia dirutan konpentsatuko zen. Lursail hori herri-ondasuna da.

Beteluko Udalak Maria Izaskun Iriarte Lanzekin hitz egin ondoren, hitzarmen horretako bigarren alternatiba hobetsi da, hau da, trukaketan sartuko litzatekeen udal lurra 1-229 lursailaren baitan dagoen 1-101 lursailaren sarbidearen eta 1-8 lursailaren arteko 25 metro karratu erabilgarriak lirateke.

Nafarroako toki administrazioaren uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 140.3 artikuluan eskatutako trukaketaren justifikazioa litzateke, desjabetze prozedura baten baitan egin dela, Beteluko Udalak 1 poligonoko 97 lursailaren 126,50 metro karratu bereganatzea behar baitzuen hilerriaren eraberritzeko proiektuan aurreikusitakoaren arabera.

Hau dena ikusirik eta Nafarroako toki administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 140.3 artikuluan ezarritakoa kontuan harturik, honako hau erabaki da:

1. Beteluko 1. Poligonoko 229. Lursaileko 25 metro karraturen desafektazioaren hasierako onarpena ematea.
2. Jendaurrean jartzea hilabeteko epean, udaletxeko iragarki-oholean, eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, egoki diren alegazioak egin ahal izateko.

Erabaki hau aho batez onartu dute Udalbatzako kideek, hau da, Udalbatzako kideen legezko kopuruaren bi herenak lortu dituzte.

Hori guztia Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 139. eta 140. artikuluetan eta Nafarroako Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamenduaren 142 eta 151 bitarteko artikuluetan xedatutakoaren arabera.

8. TOLOSAKO FERIETARAKO JUBILATUEN BIDAIK

Beteluko Udaleko alkateak aurten Beteluko Udalak finantzatu dituen Tolosako ferietarako jubilatuen bidaiak arautzeko beharra adierazi du. Horretarako ondoko baldintza hauek proposatu ditu: Urte guztian zehar hilabetean bi larunbategi Tolosako ferietara joateko taxi zerbitzuaren kostuaren %90a finantzatzea.

Hau ikusirik, udalbatzak aho batez ondokoa erabaki du:

1. Alkateak proposatutako baldintzetan, Tolosako ferietarako joateko taxi zerbitzua diruz laguntzea.
2. 2024ko aurrekontuetan dirulaguntzaren partida izendun bat onartzea eta akordio honetan aipatutako baldintzak kontuan hartuta hitzarmen bat sinatzea.

9. UDALBATZAREN EZAGUTZARAKO

1.- Desfibriladorea jartzea

Udalbatzari udaletxeko atarian desfibriladorea jarri dela jakinarazi zaio.

2.- Taberna parean oinezkoen pasabide altua jartzeko eskabidea

Udalbatzari taberna parean oinezkoen pasabide altua jartzeko Nafarroako Gobernuaren "Herri lanak eta azpiegiturak" sailari egindako kontsultaren berri eman zaio.

3.- Ingurugiroko kontseilariarekin eta zuzendari nagusiarekin bilera

Udalbatzari Beteluko udaleko ordezkari bat Nafarroako Gobernu landa garapen eta ingurugiroko departamentuko kontseilariarekin elkartu zela jakinarazi zaio. Bilera horretan Beteluko Udalaren proiektu eta hausnarketak adierazi zitzaizkion kontseilariari.

10. FAKTUREN ONESPENA

OTAMENDI ARTOLA, LORENZO	TAXI JAIA LEKUNBERRI 2023.	88,08
CONSTRUCCIONS FCO AIERBE SL	ESKOLAKO IGOGAILUA	138.976,93
ERASO OCHOTORENA, IÑAKI	WISCO ONDOKO FAROLA KONPONTZEA.	1.747,24
CAMPOS WALSH, VENUS MARGARITA	urriko zakarrontzien bilketa	154,28
CAMPOS WALSH, VENUS MARGARITA	urriko garbiketak.	2.278,83
ERASO OCHOTORENA, IÑAKI	frontoiko argiaren konponketa.	897,83
CARRILLO RUIZ, CUSTODIA ANGELES	URRIKO URAREN ANALISIAK.	90,00
IBERDROLA COMERCIALIZADOR DE REFERENCIA	ARGIZTAPEN PUBLIKOA 2023-09-28 2023-10-30	388,54
IBERDROLA COMERCIALIZADOR DE REFERENCIA	URBEROA 2023-09-28 2023-10-30	9,25
IBERDROLA COMERCIALIZADOR DE REFERENCIA	C/ MAYOR, 7, 2º Izq 2023-09-28 2023-10-30	12,27
SEIKIDE KOOP. E. ASESORIA AHOLKULARITZA	SORGINTXOKO NOMINAK.	357,56

CARRILLO RUIZ, CUSTODIA ANGELES	SORGINTXORAKO EROSKETA.	41,70
RODRIGUEZ EZPELETA, JOSE MIGUEL	ESKOLAKO IGOGAILUAREN HONORARIOS.	3.987,53
IBERDROLA CLIENTES SAU	ARGIZTAPEN PUBLIKOA 2023-09-30 2023-10-31	691,06
GARCIA SATRUSTEGUI MAITE Y SATRUSTEGUI L	SORGINTXOKO URRIKO MENUAK.	741,00
CODISNA S.L	HIPOCLORITO EROSKETA.	145,20
SERLIMPIA, SL.	PRESAKO KOMUNEKO URRIKO GARBIKETA.	67,76
CHOCARRO Y URMENETA, S.L.	URBEROAKO MEMORIA	1.452,00
GARCIA SATRUSTEGUI MAITE Y SATRUSTEGUI L	JUBILATUEKIN BILERA EGIN ETA GEROKO MERENDOLA.	84,59
GOIENER, S. COOP.	eskolako urriko argia	878,90
GOIENER, S. COOP.	udaletxeko urriko argia.	564,07
OLANO ZABALETA, MIGUEL RAMON	ostatuko eskailerak konpondu.	343,64
OLANO ZABALETA, MIGUEL RAMON	deposituko mantenimendua.	121,00
OLANO ZABALETA, MIGUEL RAMON	jardineko belarrak moztearena.	484,61
OTAMENDI ARTOLA, LORENZO	urriko tolosarako bidaiak.	114,10
ANIMSA	ZERBITZUEN PRESTAZIOA	249,85
RODRIGUEZ EZPELETA, JOSE MIGUEL	Aiztitxoko honorarioak.	2.237,13
VIZCAINO DE PETROLEROS S.L.	ESKOLARAKO GASOILA.	3.590,07
SUMINISTROS MONCAYO, S.A.	AUZOLANERAKO MATERIAL EROSKETA.	357,92
WIKAI	URRIKO KONTSUMOA	80.94
OFICO	URRIKO GASTUAK	123.23
LEITZAKO UDALA	2022 URTEKO RED NELS	64.62
ZIGARI ELKARTEA	AUZOLANEKO HAMAIKETAKOA	33.35
MAITE GARCIA SATRUSTEGI	AUZOLANEKO HAMAIKETAKO JANARIA	38.80
EURO DEPOT ESPAÑA SAU	AUZOLANEKO MATERIALA	460.55
SORGINTXO HAUR ESKOLAKO LEHEN ZIKLOA		
HERMEX IBERICA SL	SORGINTXORAKO EROSKETA	336.82€
ESTANGA ARRIZUBIETA, MARIA ROSARIO	SORGINTXOKO URRIKO GARBIKETA PRODUKTUAK	46.80
ESTANGA ARRIZUBIETA, MARIA ROSARIO	SORGINTXOKO URRIKO JATEKO PRODUKTUAK	79.21

Lehendakariak fakturak bozkatzera ekarri eta udalbatzan diren kide guztiek aho batez onartu egin dituzte.

11. GALDERAK ETA ESKAERAK

Ez da ez galdera ez eta eskaerarik egin.

Arratsaldeko bederatziak direnean, bilkura amaitu eta altxatu egin da, idazkaria naizen honek ziurtatzen dudana.